

## Kirolari buruzko elkarrizketak 1975-2020. Amaierako Adierazpena

XVI AEISAD Nazioarteko kongresua

(Kirolari aplikatutako gizarte ikerketaren espainiar elkartearena)

Sarrera .....	2
I. Kirol praktikaren testuingurua .....	3
I.1. Lege-esparrua.....	3
I.2. Kirol politikak.....	4
I.3. Praktikaren espazioak .....	5
II. Pertsonak eta beren praktikak.....	5
II.1. Orokorrean beharrezkoa da .....	5
II.2. Kirol genero ikuspegiaren erronka zaharra.....	6
II.3. LGTBIQ+ komunitatearen inklusioa.....	7
II.4. Sexu indarkeria .....	7
II.5. Kolektibo zehatzak .....	8
II.6. Errendimendu handiko kirola .....	9
III. Formazioa, ikerketa eta lan merkatua.....	9
III.1. Formazioa.....	9
III.2. Ikerketa.....	11
III.3. Lan merkatua.....	12
IV Kirola gizartean.....	13
IV.1. Ekonomiaren eremuan .....	13
IV.2. Teknologiaren eremuan.....	13
IV.3. Nazio nortasunen eremuan.....	13
IV.4. Aisialdiaren erabilpena eta pandemia .....	14

## Sarrera

“Kirolari buruzko elkarrizketak 1975-2020” proiektua 2018an abiatu zen azken berrogeita bost urteetan kirolak Espainian izandako eboluzioaz hausnartzeko asmoarekin. Bi ekimenen inguruan egituratutako proiektua izan da – liburua eta kongresua, biak ere proiektuaren izenburu berarekin – eta horiei esker pertsona eta erakunde ugari barne hartu ahal izan dira egitasmoan.

Hainbat belaunalditako berrogeita bost pertsonak parte hartu zuten liburuan eta kirol sistema egituratzen duten alderdien osotasuna jorratu zuten. Beren ekarpenak kongresuaren abiapuntua izan ziren, XVI AEISAD Kirolari aplikatutako gizarte ikerketaren espainiar elkartearen nazioarteko kongresuarena, ekarpenak areagotzea eragin duena: 150 parte-hartze orotara, irekiera konferentzian, hiru mintegitan eta 63 ekarpen barne hartu zituzten zortzi komunikazio saioretan banatuta.

Orotara, hauteman daiteke aztertutako denbora epean – mehatxu eta ziurgabetasun handien unean hasi zena – erdietsi dela kirol sektorean gizarte garatuetako eskubide eta betebeharrak ezartzea. Alabaina, konpondu gabeko arazoak daude, eta bestelako egoerak sortu dira (2009ko krisia, klima aldaketa, pandemia, pertsona errefuxiatuen mundu krisia, gorputz eta osasun mentala erasaten duen goi mailako kirolarien esplotazioa...), eta sistema irauli duten eta erantzuna ematea eskatzen duten gizarte eta politika mugimendu berrien agerpena (Martxoaren 15a, feminismoaren indar hartzea...). Diktadura amaieran jaio zirenei sarritan ikusezinak zaizkie 45 urte hauetan eskuratutako lorpenak, emantzat hartuak baitituzte. Askotan eskas hautematen dituzte, ugari baitira oraindik bete beharreko erronkak, proiektu osoan ondorioztatu ahal izan den moduan.

“Kirolari buruzko elkarrizketak” proiektuak iragana ezagutu eta aztertzeke aukera eman du, etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko. Belaunaldien arteko elkarrizketak ahalbidetu du 1975etik gaur egun arte kirol sisteman gertatutako aldaketen prozesuaren ezagutza, bere mugak eta arrakasta barne hartuta. Elkar truke honek lagundu du parte hartu duten pertsonen ahalduntzean. Aldaketa berriak bultzatu eta sortzeko ahalduntzea, beharrezkoa dena iraultzeko, oraindik konpondu gabeko auziei aurre egiteko, eta ikusmira zabaltzeko gaur egungo gizartean eta etorkizunekoan kirol eta jarduera fisikoa ikusi eta bizitzeko modu berri eta askotarikoetara. Duela 45 urte egin zen zerbait, eta orain berriro egin beharrezkoa.

“Elkarrizketak” izeneko proiektuaren baitan garatutako eztabaidaren emaitza adierazpen gisara bideratua dago, kongresuaren itxiera ekitaldi saioan bertaratutako parte-hartzaileek berretsia, erakunde guztiei helaraziko zaiena eta gizarte zibilaren osotasunari, Espainiar estatuan kirolaren egoera garatzen eta hobetzen laguntzeko asmoarekin egina.

Adierazpena lau eremuren inguruan egituratuta dago, eta horietako bakoitzean aintzat hartu beharreko alderdiak proposatzen dira

## I. Kirol praktikaren testuingurua

Estatuko kirolaren garapena uztartuta dago, ezin bestela izan, diktaduraren amaierarekin eta demokrazia sistemaren ezarpenarekin.

Espainian kirolaren garapena ezarri zuen araua izan zen 1978ko Konstituzioa. Alde batetik, botere publikoei agintzen zuelako “kirola eta gorputz-hezkuntza sustatzeko” betebeharra; bestalde, estatua deszentralizatzen zuelako erkidego autonomoei eskumen gorenak emanda, eta halaber, kirolak zerbitzu publikoko nortasuna ere izan dezakeela kontuan hartuta, udalen eskuetan ere utzita.

Hastapenetik, sektore publikoak – eta bereziki, udalek – funtzio hegemonikoa eduki dute kirol sustapenean eta hiritarrentzat programak abiarazi eta kirol azpiegiturak sortzean. Aldi berean, asoziazio sektore tradizionalaren hazkundera gertatu zen – klub eta federazioekin – eta bi sektoreen arteko elkarkidetzak geroz eta gehiago sortu ziren. Azken bi hamarkadetan sektore komertzialaren garapen eskergea izan da (gimnasioak, fitness zentroak, kirol zerbitzu enpresak, eta abar), eta dagoen eskariaren zati handia asebetetzen du. Bestalde, goi mailako kirola sistema autonomoa bailitzan eraiki da, eta bere ibilbidea bestelako erakundetze bideetatik jarraitua da. Eta ikuskizun kirolak – eta oso bereziki, futbolak – entretenimendu industriaren parte gisara, gizarte bizitzaren alderdi ugari barne hartzen ditu, eta duela gutxi arte pentsaezina izango zitekeen muturreraino eragiten ditu horiek (e-sports, errealitate hibridoak, Olinpiar Jokoak eta munduko txapelketak...).

Hala ere, aipatutako aldaketek lehenago ere konplexuak ziren orekak astindu dituzte, eta komenigarria eta beharrezkoa litzateke hurrengo puntu hauek kontuan izatea:

### I.1. Lege-esparrua

- Kirolaren Lege berriak aintzetsi dezala eta sor dezala jarduera-esparrua kirol sistemaren garapen berrietarako eta gaur egungo legearen gabeziarako (teknologia berriak, digitalizazioa, jasangarritasuna, genero parekidetzea...)

## I.2. Kirol politikak

- Kirol Kontseilu Gorenetik – nahiz eta kirol sustapenean eskumen gutxi izan – ekintzak burutzea kirol praktika hiritar guztientzat gizarteratze jarduera eta osasunezkoa bezala ikusarazteko. Erakunde honek 2010ean sustatu zuen *Kirol eta jarduera fisikorako plan integrala* – Espainian inoiz egindako kirolaren planifikazio ahalegin handiena, ehunka aditu baino gehiagoren parte-hartzeaz, kirol esku-hartzearen zortzi eremutan lan eginez – ez litzateke ahanzturan erori behar, eta horren funtsa berreskuratu egin beharko litzateke.
- Erkidego autonomo bakoitzean kirol sistemak edukitako garapen oso anitzen testuinguruan –ekonomia, gizarte eta kultur arloko berezitasunek eragindakoa, estatuaren aberastasun handienetakoa dena – Espainiaren aniztasuna aitortu dadila, elkartuta urratsak egiten jarraitzeko. Horregatik beharrezkoa da kirol eskaintzaren aniztasuna, kultur eta kirol berezitasunak bermatuko dituen, eta ekidin egingo dituen kultur anitzak homogeneo bilakatuko dituzten “kirol eskaintza ereduak”.
- Herri kirol eta jokoen aniztasun aintzestea, eta horiek berreskuratu eta mantentzeko beharrezko nabarmentzea.
- Espainia hiritarraren eta hustutako landa eremuaren arteko ezberdintasunak eta berezitasunak ere kontuan hartzea, kirol praktikarako sarbide parekidea laguntzeko.
- Kirolaren arduradun diren administrazioek era koordinatuan eta lidergo eraginkorraz, zintotasunez eta prestutasunez aritzea, horrela lortu baitziren iraganean lorpenik handienak.
- Kirol praktikek gizartearentzat dituzten onura eta aukeren inguruan informazio hedapena sustatuko duten plataforma digitalak sortzea. Argibideak eskaini behar dituzte ariketa fisikoari buruzkoak, praxi okerren arriskuen ingurukoak eta oinarrizko aholkuak eman ere bai. Garrantzi bereziko alorrak lirateke bizi izan diren berrogeialdi edo konfinamendu garaiotan.
- Lankidetzaren publiko-pribatuko akordioetara heltzean, gaur egungo egoeran oso joera ohikoa dena, guztion ongizate eta zerbitzu publikoaren eta kudeaketaren errentagarritasunaren arteko oreka beharrezkoa mantendu dadila.

### I.3. Praktikaren espazioak

- Kirol Kontseilu Gorenak, Europako Funtsen baitan, dagokion ministerioari eskatzea udal eta erkidego autonomoei zuzendutako funtsen inbertsio proposamenen deialdia argitaratzea, kirol azpiegituren birmoldaketarako eta kirol digitalizazioaren sustapenerako.
- Hezkuntza zentroak kirol eta jarduera fisikoen praktikarako eta eskola gorputz-hezkuntzarako azpiegitura egokiekin hornitzea, bide horretan jardueren dibertsifikazioa eta genero ikuspegia bultzatuta.
- Natur ingurunean jarduera fisikoa bultzatzeko kanpainak garatzea, eragileen arteko sinergiak hitzartuta (hezkuntza arlokoak, kirolekoak, gizartekoak,...)
- Kirol azpiegituren segurtasuna ziurtatzea, hori kontuan hartu izan balitz saihestu ahal izango ziren istripu eta hondamendi gehiago gertatzea ekiditeko.
- Gizarte aktiboak garatzea sustatuko duten inguruneak diseinatzea: etorbideak, ongizatezko parkeak, bideak...
- Genero ikuspegia txertatuta, eta hiritar ahalik eta gehienentzat irisgarriak izango diren kirol praktikako hiri espazioak sortzea, eremu multifuntzionalak izanda, jarduera eta populazioaren adin tarteei dagokienean.
- Kirol ekitaldiei, eta kirolari orokorrean, balioa eman dakiela, hiri errealitate eta espazioen elementu transformatzaile gisara.
- Jasangarritasunaren ikuspegian oinarrituta beti ere, natur ingurunean kirol espazioen garapena ahalbidetuko duten proposamenak sortzea.

## II. Pertsonak eta beren praktikak

Espainiako populazioaren kirol praktika maila etengabe handitu da 1975 urtetik azken hamarkada hauetan zehar, 2020an biztanleen %54,8ak gutxienez astean behin kirola praktikatzera heltzeraino. Kirolaren demokratizazioak posible egin du lehenago jarduera fisikora edo kirolera sarbidea ez zuten pertsona askok gaur egun horretaz gozatu ahal izatea. Alabaina, aurre egin beharreko gabeziak ere hauteman dira, hurrengo auziei dagozkienak:

### II.1. Orokorrean beharrezkoa da

- Populazio guztiak kirolera baldintza-berdintasunean sarbidea izan dezan ziurtatzeko baldintzak hobetzea, beharrezko neurriak hartuta familia eta lan betebeharrak eta kirol praktikaren kontziliazioa posible egiteko.
- Kirola populazioaren osasun mentalaren alde lana egiteko baliabidea izan dadila. Zentzu horretan, kirol eta jarduera fisikoko profesionalen pentsaera

aldatzea beharrezkoa da: lehiaren kultura bigarren planoan kokatzea lankidetzazko ekintza gehiago sustatuta, ongizatea, autoestimua eta hezkuntza emozionala lagunduko dutenak.

- XXI. mendean bete-betean sartuta, eta bereziki izurritearen ondoren, bai inguruarekiko eta bai pertsonarekiko kontzientziatzeko kirol praktika garatzeko lan egin dadila. Natura ingurunean egindako jarduerak lagundu dezakete lan introspektibo honetan.

II.2. **Kirol genero ikuspegiaren erronka zaharra.** Honi lotuta, “Elkarriketak” proiektuak baieztatzen du genero ezberdintasunak mantentzen direla populazioaren kirol ohituretan, eta berdintasun eza eta diskriminaziozko egoerak. Horregatik, beharrezkoa da:

- Estereotipo eta aurreiritziei aurre egiten jarraitzea, eta noranzko horretan garrantzizkoa da emakumezko erreferenteak egon daitezela kirol eta jarduera fisikoko eremu guztietan (kirolariak, kudeatzaileak, zuzendariak, entrenatzaileak, fisioterapeutak eta berregokitzaileak, psikologoak, kazetariak eta abar).
- Emakumeen presentzia sustatzea kirolaren ogibide ezberdinetan: prestakuntza badute, baina ez lantokia, eta ildo horretan beharrezkoak dira ekintza positiboko neurriak, tradizionalki maskulinoa eta maskulinizatua den erakundetze kultura eta kultur profesionala “deserreraikitze”.
- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduetako fakultateetako ikasketa planak birpentsatzea genero ikuspegitik, eta hartara, ikasle guztiak erabateko berdintasunean prestatuko diren kirol kultura bultzatzea.
- Frankismoko emakumeen ahozko oroimena berreskuratu eta ikusgarritasuna ematea, espainiar kirol sistemaren eboluzioan beren parte-hartze eta ekarpena aitortzeko, bai elitezko kirolean eta baita ere populazio orokorraren kirol eta jarduera fisikoan.
- Genero ikuspegia praktikara eramateko estrategia/metodologia berriak bilatzea, politika publikoetatik, kirol kudeaketatik, gorputz-hezkuntzatik eta abarretik, gaur egungo legediak ezarritakoari jarraiki. Beharrezkoa da konpromiso eraldatzailea galdegitea eremu horiekin guztiekin lotutako pertsonen.
- Genero berdintasunaren noranzkoan maila kualitatiboan pausoak ematea, ez baita aski kuantitatiboki urratsak egitearekin (horiek ere, ez bairik gabe bultzatu beharrekoak izaki), baizik eta areago erakundeak antolatuzko

ereduetan eta kirol sistema tradizionalan ere bai, kultur hegemoniko androzentrikoa ezerezteko.

- Emakumeak artatzea multzo horretako aniztasun guztizkoa aintzat hartuta, perspektiba interseksionala abiapuntutzat hartuta.

**II.3. LGTBIQ+ komunitatearen inklusioa.** XXI.mendean bete-betean barneratuta, kirolak erronka handi gisara du kirol taldeetan eta kirola praktikatzen dutenen artean sexu orientazioa eta genero identitatearen auziaren tabua apurtzen laguntzea. Zentzu honetan:

- Kirolean LGTBI+ komunitatearen azterketak *taldearen heterogeneitatea* kontuan hartu behar du, ezberdintasun handiak baitaude bere baitan.
- LGTBI+ komunitatearen barruko pertsonak buruko gaixotasunak jasateko probabilitate gehiago dituzte, eta ohikoa da babes falta hautematea inguruko profesionalengandik (Taldea tekniko eta irakasleengandik). Hori dela eta, *ingurukoak hezi eta espazio seguruak sortu* behar dira.
- Komunitatearen barruko emakumeek *diskriminazio bikoitza* pairatzen dute (genero eta sexu orientaziokoa). Erakundeek emakumeentzako babes mekanismoak garatu behar dituzte, berdintasun, dibertsitate eta inklusio balioetan oinarritutako antolaketaren kultura sustatu, eta era berean, formazio programak ezarri. LGTBI+ komunitateko gizonezkoak ikusezin dira, eta hala ez da erraza aurkitzen publikoki homosexualitatea aitortu duten kasuak: Kirol sistema tradizionalan gainjartzen den maskulinitate hegemonikoak zaildu, eta areago, eragotzi egiten ditu maskulinitatearen bestelako adierazpideak. Horrenbestez, egoera hau askatzeko ekinbideak behar dira, inguru inklusibo edo barne hartzaileagoak sortu ahal izateko.

#### II.4. Sexu indarkeria

Kirol sisteman bizitasunez azaleratzen den beste auzi bat kirolean sexu indarkeriari modu argi eta irmoan aurre egiteko dagoen beharrizan eta garrantziarena da. Premiazkoa da beste alde batera begiratzeari uztea edo auzi hau isilarazten ez jarraitzea. Horretarako ildo hauek jarraitu behar dira:

- Genero indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren bidetik jarraitu behar da, lorpen handia izan baita.
- Espainiar estatuan ikerketa sustatu behar da datuak eskuratu ahal izateko. Ez da ezagutzen Espainian sexu indarkerien benetako irismena.

- Erakundeak kiroleko sexu indarkeriari aurre egiteko baliabideez hornitu behar dira, kirol testuinguruari aplikatutako gizarte neurriak hartuta (formazioa, babes sareak...) eta egitasmo juridikoak mahai-gaineratuta (lege aholkularitza, protokoloak...). Izaera horretako formazioak derrigorrezkoa izan behar du kirol profesionalentzat.
- Indarkeriaren aurka haur eta gazteei guztizko babes eskaini asmo dien 8/2021 lege organikoari dagokionez, mekanismoak sortu behar dira kirol elkarteek babes politika sistematikoak izan ditzaten eta horiek ezartzea errazteko.

## II.5. Kolektibo zehatzak

Halaber, proiektuak kolektibo zehatzetako pertsonen inklusio edo barne hartzearen alde lan egitearen garrantzia nabarmentzen du: gaitasun ezberdineko pertsonak, baztertua jasateko arriskuan daudenak edo bazterreratuak daudenak, espetxeetakoak, errefuxiatuak, lagundu gabeko adingabeak, eta abar. Bide horretan ekimen hauek hartu behar dira:

- COVID-19 izurriteak gehien eragindako taldeen babeserako programa espezifikokoak ezartzea.
- Kirol eta jarduera fisikoko profesionalek betetako zeregina aitortzea, izan ere, berariazko borondatea edukitzeaz gain, kolektibo zehatz hauekin lan egiteko eskumenak dituztenak dira.
- Dibertsitate funtzionala eta adimen-desgaitasuna duten pertsonen egoera hobetzeko ikerketak egitea, urrats asko egiteke dagoen eremua delako.
- Baztertzeko arriskuan dauden taldeentzat, errefuxiatu eta abarrentzat, kirol edo jarduera fisikoko eskaintza gehiago bideratzea, integrazioa, ongizatea, autoestimua eta osasun mentala laguntzeko baliabide garrantzitsuak baitira.
- Espetxeetan jarduera fisikoa eta kirola sustatzea, izan ere, birgizarteratze prozesuetarako eta osasunerako, hau zentzu zabalenean hartuta (fisikoa, gizartezkoa eta mentala), gailu nabarmena izan daiteke.
- Presondegietan emakumeei zuzendutako eskaintza beren interes eta beharrietara egokitzea, gizonen interesak aintzat hartzen diren modu berean.
- Abian jarritako ekimenek presondegietako burokrasia kontuan hartzea, burutu nahi diren ekintza asko geldiarazten dituena. Azpimarratu beharra dago, halaber, espetxeetako burokraziak ikerketa zaildu egiten duela.



## II.6. Errendimendu handiko kirola

Azkenik errendimendu handiko kirolean, hala nola, olinpiar edo paralinpiar kirolean, munduko txapelketetan... barneratuta dauden pertsonen berezitasunei erantzutearen garrantzia nabarmentzen da. Hori horrela, hauek proposatzen dira:

- Kirolarien karrera duala laguntzeko baliabideak ezartzea, eta inplikaturako eragile guztien parte-hartzea bultzatzea.
- Lan-munduan txertatzea laguntzea.
- Neurriak hartzea beren osasun mentala zaintzeko. Garaipenak kudeatzen eta porrotak onartzen lagundu behar da, eta horrezaz gain, sare sozialetan jasaten dituzten erasoek modu negatiboan ez eragitea.
- Euren osasun fisiko erabatekoa artatzea, eta neurriak jartzea elikadura-jokabidearen nahasmenduak saihesteko, hainbat kirolean ohikoak direnak.
- Entrenatzaileak, agintariak eta kirol kazetariak balio etiko eta osasunekoetan heztea, kirolak egiazki osasun mentala eta fisikoa laguntzea ziurtatzeko bidean urrats garrantzitsua izango zatekeena.
- Emakumezkoen kirola gizonezkoen kirolaren baldintza berdintasunean profesionalizatzea, eta horrek galdegingo luke inbertsioak handitzea eta beharrezko egiturak sortzea.
- Formaziozko epeetan kirol praktika mistoa bultzatzea eta kirol aldaera mistoak garatzea, emakumezko eta gizonezkoen parte-hartzea sustatuko dituen, eta horrela kirol maskulino edo femeninoen etiketak deuseztatuta.
- Kirolarientzat amatasunaren auzia lantzea, eta era berean erantzunkidetasunarena, eta familia-kirola kontziliazioarena, kirol eta jarduera fisikoko profesionalengan.
- Hedabideek emakumezkoen kirolaren presentzia handitzen jarrai dezatela, hori egiten hasi dutenetik ikusleriak edo audientziak ere gora egin duelako.

## III. Formazioa, ikerketa eta lan merkatua

### III.1. Formazioa

Kirol arloko prestakuntza espezializatua eta askotarikoa bihurtu da azken hamarkadetan, kirol praktiken adierazpen anitzak aintzakotzat hartzeko. Hezkuntza arautuan presentzia du, bai eskolan, gorputz-hezkuntzako irakasgaiarekin; baita ere goi mailako irakaskuntzan, haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako irakasleen formazioarekin (horiei dagozkien unibertsitate graduekin eta irakasleen

prestakuntza masterrekin), Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduarekin, Lanbide-heziketako titulazioekin, araubide bereziko kirol irakaskuntzekin eta federazio titulazioekin. Horrezaz gain, bestelako irakaskuntza ez arautuetan ere badago. Kirol eta jarduera fisikoko profesionalen formazioan inplikaturako titulazio guztiek beren curriculuma egokitu behar dute gizarte testuinguruan agertzen ari den behar berriei. Horretarako hau aholkatzen da:

- Titulazioen programetan hezkuntza emozionalari, jazarpenaren (bullying) prebentzioari, sexu indarkeriei eta genero ikuspegiari buruzko edukiak txertatzea, bai zeharkakotasunez eta baita berariazko irakasgaiak gehituta.
- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradu titulazioetan emakumeen presentzia areagotzeko plan estrategikoa abian jartzea. Egitasmo horrek barne hartu beharko luke titulazioaren errepresentazio androzentrikoaren eta maskulinitate hegemonikoaren murriztea, eta era berean genero ikuspegiko diziplina arteko estrategien diseinua.
- Curriculum planak gizarte testuinguruan agertzen ari diren auziei egokitzea: jasangarritasuna, *teknologizazioa*, generoen dibertsifikazioa, kultur eta etnien askotariko bihurtzea, eta nortasun nazio aniztunaren aitortza.
- Osasun mentalaren kudeaketari buruzko formazioa areagotzea: kirolarien antsietatea, gorputz eskemaren hautemate negatiboa eta elikadura-jokabideen nahasmenduak.
- Kirol irakasleen eta profesionalen formazioaren alorrean hezkuntza-berrikuntzarako diru-kopurua areagotzea, pedagogia kritikoak sustatuko dituzten metodo aktiboen garapena ahalbidetuko duena.
- Kirol eta jarduera fisikoaren eremutik garapen jasangarriko helburuak lortzen lagunduko duten ekimen didaktikoak babestea.
- Etorkizuneko profesionalak natur ingurunekeo jardueretan hezteko, metodo aktiboen bitartez eta natur eremuko esperientzia gorenarekin.
- Gizartean komunikazioa indartzea, bereziki familiei zuzendutakoa, gorputz-hezkuntzaren arloan egindako ekimenen inguruan gizarte aitortza hobetzeko helburuarekin.
- Gorputz kulturari eta gorputz praktikei diziplina anitzeko ikuspegiarekin helduko dioten ekimen didaktikoen areagotzea.
- Bizitzan zeharrerako eta eguneroko bizitzarako transferigarriak diren ikaskuntzek izan behar dute lehentasuna, gizartea eraldatzen laguntzen duten

neurrian, ariketa fisikoko, jolaseko, jarrera-kontrolako, erlaxaziozko eta autoezagutzazko ohiturak eskuratzearen bitartez.

### III.2. Ikerketa

Kirol gertakariari, kirol praktikei eta jarduera fisikoari uztartutako berariazko ikerketa esparrua finkatzea lortu da. Hori ahalbidetu du Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduetako ikertzaileen eta komunitate akademikoaren zientzia jarduera geroz eta handiagoak. Azken hamarkada hauetan zientzia ekoizpena modu esponontzialean hazi da, kopuruan eta kalitatean. Aurrerapen horrek finantza eta logistika laguntza behar du bikaintasunerako bideari jarraitu ahal izateko, gizarte ongizateari zalantzarik gabe mesede egiten diona. Horretarako, hau gomendatzen da:

- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduetako ikerketak estatuko zientzia programen helburuen artean sartzea, estatu mailako I+G+B planetan lehentasunezko arlotzat har dadin.
- Unibertsitateetako zuzendaritza taldeek Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduetako aitorpenean parte hartzea.
- Ikerketarako laguntzen deialdietan jarraitu ahal izatea, taldeek beren proiektuak burutzeko egonkortasuna izan dezaten.
- Gizarte ikerketa lehentasunezko arlo gisara aitortzea, eta hala, zientzia esperimentaletan bezala, baliabide ekonomikoak behar dituela azaleratzea.
- Ondorengo ardatzetan oinarritzen diren ekintza zehatzak garatzea: 1 ) Zeharkakotasuna, 2) Talde-lana eta 3) Kirolaren eta Gorputz-hezkuntzaren zientzia eremuaren ikusgarritasuna.
- Kirol zientzietako elkarte zientifikoak aintzat hartu eta kontsultatzea, laguntza deialdietarako eta ikerketaren garapen planetarako.
- Kirol eta jarduera fisikoaren eta emakumeen bikoaren berezitasunei buruzko ikerketak babestea, eta genero ikuspegia duen ikerketa sustatzea.
- Ikerketa babestea garapen jasangarriaren helburuak lortzen laguntzeko kirolaren eta gorputz-hezkuntzaren esparrutik.
- Gobernuak gorputz-hezkuntzaren hedapenerako bigarren plana bideratzea; izan ere lehenengoak, aurrerapauso bat izan arren, ez zituen zeuden beharrak asebate, eta oraindik ere prekarietate egoerak gertatzen dira.
- LGTBI+ kolektiboari buruzko ikerketa areagotzea.

- Kirol Kontseilu Gorenak Espainiako biztanleen kirol-ohiturei buruzko inkesta egiten jarraitzeko duen konpromisoa berrestea, denbora zikloa, eta halaber, galdera-sortak egiteko irizpideak mantenduta, joeren azterketa egin ahal izateko.
- Kirol Kontseilu Gorenak kirol azpiegituren nazio errolda egiten jarraitzeko mekanismoak sortzea, azken zenbaketa 2005ean burutu zela kontuan hartuta.

### III.3. Lan merkatua

Espainian kirol praktika handitzearekin batera, horri lotutako lanbideak ere handitu egin dira. Horrek lan merkatuaren konplexutasun handiagoa dakar, eta, beraz, funtsezkoa da lanbide erregulazioa burutzea, pertsonen interesak bermatu dituen, bai zerbitzuak jasotzen dituztenena eta bai profesionalena. Ildo horretan hau premiazkoa da:

- Kirolaren lan merkatuan lan egiten duten pertsonen lan prekarietateaz ohartaraztea eta hori saihesteko irtenbideak aplikatzea.
- Kirol kudeaketaren ardura duten teknikarien plazak berritzea, eta lankidetzako publiko-pribatuak hitzartuz gero, lanpostu duinen mantentzea bermatzea.
- Kirolaren eremu profesionaleko maskulinizazioa murrizteko plan estrategikoa ezartzea. Izan ere, faktore horrek eredu maskulino hegemonikoa erreproduzitzea eragiten du eta emakumeentzako oztopoak sorrarazten ditu.
- Gorputz-hezkuntzako irakasleen eta kirol langile eta teknikarien formazioan inplikaturik dauden titulazioetako programetan genero ikuspegia sartzea, bai zeharkakotasunez, bai berariazko irakasgaiak sartuz, hala nola, sexu indarkeriari aurre hartzekoa, heziketa emozionala eta bullying-ari buruzkoa.
- Kirolaren erregulazio profesionala bideratzea, lanbide elkargo erakundearen eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduetako dekanoen konferentziaren elkar-ulertzearekin. Horrela, prestakuntza mailaren araberako estatu mailako erregulazio legea sortzeko baterako defentsa egin dezatela, eta azkenerako horrek ahalbidetu dezala ministro agindu bidez araututako lanbide titulu bat sortzea.
- Lanbide elkargo erakundearen barruan demokratikoki hartutako erabakien erakunde errespetua eta aitortzea.
- Etikan eta lanbide heziketan oinarritutako prestakuntza sustatzea kirolaren lan merkatuan sarbidea ematen duten titulazioen ikasketa planen barruan, joko garbia, aukera berdintasuna eta guztien ongia ziurtatzeko.

#### IV Kirola gizartean

Kirolak lotura estua du beste gizarte sistema batzuekin, eta hala elkarri eragiten diote. Horregatik beharrezkoa da ikuspegi horretatik aztertzea. Proiektu honetan, ekonomiaren, teknologiaren, ekitaldi handiek eragiten duten transformazioaren eta nazio nortasunen ikuspegitik jorratu da. Hori guztia, guztiz eragin gaituen eta beharbada oraindik pentsatu ezin dugun moduan eragiten jarraituko gaituen, pandemiaren testuinguruan. Hori horrela, hau proposatzen da:

##### IV.1. Ekonomiaren eremuan

Kirolaren eragin ekonomiko geroz eta handiagoa egiaztatu da, baina norainokoa den jakitea falta da, eta horrenbestez, beste urrats bat egiteko beharra dago. Badira azterketa partzialak, geroz eta azterketa adierazgarriagoak ere, adierazle handienak ezagunak ditugu, baina zehaztasuna falta zaigu, xehetasuna, kirolak ekonomian, aberastasunean, lanean, duen esanahiari dagokionean. Beraz, beharrezkoa da kirol sektorearen kontu satelitea eratzea, estatuaren kontabilitate eta estatistikarekin, bere gastu tamaina erreala zein den bereizten laguntzeko.

##### IV.2. Teknologiaren eremuan

Bultzatu egin behar da teknologia gizartean kirolari buruzko eztabaidara barneratzea. Teknologia dagoeneko kirolean presente dago, jokalekuaren barruan – gaur egun berebizikoa da kirol praktika orotan – eta horretatik kanpo ere, erakundeei, hedabideei (berri eta zaharrei), zaleei, kudeatzaileei eta abarrei eragiten baitie.

Horregatik ekimen hauek hartu behar ditugu:

- *Errealitate hibridoaren* ondorioak ezagutzen ikastea. Ikuskizun kirola entretenimenduaren industriako parte da dagoeneko, eta entretenimendu digitalean barneratu da plataforma digital handiekin lehiatuz.
- Big dataz kontzientzia hartzea eta jendearen erabakietan duen eraginaz.
- Teknologiak kirol praktikaren hobekuntzari, azpiegituren kudeaketari eta kirol hezitzaileei laguntzeko duen modua ikastea, eta era berean, teknologiak hedabideei egin dakiekeen ekarpenaz jabetzea, informazio erakargarri eta egiazkoagoa eskaintzeko bidean.

##### IV.3. Nazio nortasunen eremuan

Aintzat hartu behar da kirola beti egon dela horiei uztartuta eta horien beharra izan duela bere garapenerako. Hedabideek komunitateen arteko gatazkak erabili izan dituzte hainbatetan. Proposatzen dugu tentsioak eta liskarrak sorrarazi beharrean, dauden identitateak aitortzea – askotariko identitateak barne – aberastasun iturri gisara hartuta,

eta hartara kirol eremu antolatuan adierazpen bide positiboak eskaintzea, gorroto eta indarkeriazko adierazpenak eragotzita.

#### IV.4. Aisialdiaren erabilpena eta pandemia

Azkenik, bizitzen ari garen gizarte postindustrialean kokatuta, aisialdi sortzaileak geroz eta zeresan handiagoa izango duen honetan, aisialdiaren erabilpenerako ikasi eta geure burua prestatu behar dugu – ez soilki lanerako –. Aldi berean, izurriteak kirolari eragin dio eta eragiten jarraituko dio. Covid 19-a artean zulo beltza bezalakoa da, eta pandemiak gauza batzuk ezagun ditugun arren, asko falta ditugu oraindik ezagutzeko. Teorikoki izurriteak epe motzera kirola indartuko du: jende gehiagok egingo du kirola; dagoeneko egiten duenak gehiago egingo du ... baina agian ez guztiek modu berdinean, ez norbanako denek era berean. Adi egon beharko dugu egoera berrietara egokitzeko.

Pandemiak azaleratu duen gizakiaren hauskortasunak, seguru asko, horrek baino luzaroago iraungo du.

\*\*\*\*\*

Mahai-gaineratu diren helburu edo jomuga hauek guztiak betetzeko, ezinbestekoa izango da elkarrizketa, entzutea eta konpromisoak bilatzea gizarte eragile eta erakunde oso anitzen artean, aurrera egiten jarraitzea ahalbidetuko diguten bideak aurkitzeko, eta kirola eta jarduera fisikoa jarrita hobetzekoak diren lehentasunezko helburuen artean.

Bartzelonan, 2021eko urriaren 23an

Adierazpen honen testua Maria Jose Mosquera (A Coruña Unibertsitatekoa) eta Nuria Puig (Kataluniako INEFekoa) koordinatzaileek prestatutako hastapeneko zirriborrotik abiatu da.

Fernando Parisek (FAGDE Espainiako kirol kudeaketa elkargoen federaziokoa), Ana Reyk (Vigo Unibertsitatekoa) eta Susanna Solerrek (Kataluniako INEFekoa) kongresuaren itxiera ekitaldian aurkeztu zuten eta orduan agertutako zatiak sistematizatu dituzte.

Kontalari taldea – Duna Boschek, Estela Fariasek, Cati Lecumberrik, Anna Rovirak, Jordi Seguik, Julia Serranok, Judit Solanasek eta Carles Venturak ostatatutakoa – arduratu zen kongresuko saio bakoitzean egindako ekarpenak jasotzeaz.

Ekain Rojo-Labaienek euskarara itzulia

Informazio gehiagorako, zuzendu eskaera e-mail honetara: [giseafe@gencat.cat](mailto:giseafe@gencat.cat)

Testu honen aipua egiteko:

Puig, Núria; Mosquera, María José (Koord.) Paris, Fernando; Rey, Ana; eta Soler, Susanna (2022). Kirolari buruzko elkarrizketak 1975-2020. Amaierako Adierazpena. XVI AEISAD Nazioarteko kongresua (Kirolari aplikatutako gizarte ikerketaren espainiar elkartearena). *Revista Española de Educación Física y Deportes*. (435),LXXI, 2021, (N.º 33 Esp. VI Época) pp.48-71.